

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresaren kostuei dagokienez, oraingoz kostu finko bakarra dugu, eraikinaren alokairua. Hilean 1.900€-ekoa dena. Izan ere, bertatik egingo dugu lan. Gainera, gune hau baliatuko dugu gure produktua gordetzeko eta bertan bulegoak eraikitzeko. Horrez gain, hasierako garbiketa eta bulegoen eraikuntzak 2.000€-ko kostua izango du. Horrez gain, garbitzaileen eta diseinatzaileen soldata hileko 1.550€-ekoa izango da. Bertakoa den garraio enpresa bat ere kontratatuko genuke, San Jose. Hilean 2000€ ordainduko diegu kamoien zerbitzuagatik.

Kostu aldakorrei dagokienez, Zonzini enpresekin dugun hitzarmena aipatu behar ditugu. Izan ere, gure produktuaren eskariaren araberako izango da horiei eskatuko zaien lan kopurua. Zonzini enpresarekin zuzeneko harremana edukiko dugunez, karro bakoitzeko 600€ emango diegu (150€ gehiago karroak eskailerak igotzeko oinarria badu). Azkenik, iragarkien kostua hartu beharko dugu kontuan. Hori ez da digitalki bakarrik kudeatua izango nagusiki, gure bezero nagusiak adindun pertsona baitira, beraz eskuko propaganda ere baliatuko dugu. Horrez gain, hilean 700 inprimaki sortzea erabaki dugu eta 20 bat iragarki telebistan eta beste 10 irratan. Ondorioz, hilean 10.000€ inguru ordaintzea aurreikusi dugu. Hala ere, iragarkien kopurua murrizten joango da enpresa ezagunagoa egiten den heinean.

Bestalde, erantzukizun mugatuko sozietatea izatea aukeratu dugu. Erabaki honek abantaila asko eskainiko dizkigu: gure enpresak galerak izango balitu, gure erantzukizuna hasieran jarritako diru kopuruari dagokio. Hau da, ez dugu zorra gure ondasun guztiekin ordaindu behar. Erantzukizun mugatuko elkarte bat sortu ahal izango dugu beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen ditugulako. Izan ere, bost pertsonen artean sortu dugu enpresa eta hasierako kapital minimoa, 3000€, jartzeko gai gara.

Eskala ekonomikoari begira, enpresak epe luzera ekoizpena handitzean eskuratzen dituen abantailak dira eta unitateko batezbesteko kostua murriztea dakartena. Abantailak horiek eskala-errendimendu gorakorrekin daude loturik, horretarako epe luzera ekoizpen faktero guztiak handituko genituzke, ekoizpena handitzean gertatzen den lanaren espezializazioarekin eta kapitalaren erabilera efizienteagoarekin. Enpresak bere tamaina handitzen duenean, teknologia-aukera handiagoak eta lehengaiak eta osagaiak erostean bolumen handiagatik eskuratzen diren beherapenak ere izago ditu, unitateko kostua murriztu eta ondorioz eskala-ekonomiak ekarriz. Horrek abantailak ekarriko lizkiguke nabarmenki.

Azkenik, hedapen ekonomikoari dagokionez, enpresak batek bi produktu edo gehiago batera ekoizteari esker, batez besteko kostua murriztu egiten da eta orduan hedapen ekonomikoa eskuratzen dela esaten da. Gure kasuan ez da hori pasatzen produktu bakarra saltzen dugulako, kasu honetan, karro autonomoa.

Hori guztia kontuan hartuta, hileroko gastuen batura 15.450€ ingurukoa da (iragarki kopuruaren arabera aldatu egin daiteke). Hala ere, horri Zonziniri ordaindu behar dioguna gehitu behar zaio, eskaeraren arabera aldakorra dena. Horrez gain, hasierako eraikuntzaren kostua 2.000€-koa izango da. Honi aurre egiteko, guk jarritako 15.000€-ez gain (bakoitzak 3.000€ jarriko ditugu), Kutxa banketxeari mailegu bat eskatzea erabaki dugu (25.000€ ingurukoa) gastu guztiei aurre egin ahal izateko.

Azkenik, mailegua ordaintzeko eta lehenengo hilabeteak ondoren irabaziak sortzen hasteko, karro kopuru zehatz bat saldu beharko dugu hileko (oraingoz 1.000 eta 2.000 karro inguru saltzea aurreikusten dugu, baina noski, guztiz aldakorra da).